



# i2BASK sarea erabiltzeko politika

## 1. Legezketasuna

i2BASKeko zerbitzuak Euskadi Informazioaren Gizartean Planak finantzatzen ditu eta Estatu mailan Ikerketa Zientifikorako, Garapenerako eta Berrikuntza Teknologikorako Plan Nazionalak lagundutako eta finantzatutako baliabideak erabiltzen ditu aldi berean.

Horregatik, eskaera agirian eta horko Eranskinetan ezartzen diren baldintzen mende gelditzen dira, baita une berean ezar daitekeen ordenamendu juridikoaren mende ere.

Erakunde afiliatuek hitza ematen dute ez dutela sustatuko eta praktikatuko legez kanpoko praktikarik. Gainera, erakunde afiliatuek honakoak zainduko dituzte bereziki:

- a) Ordena publikoa: ekidin egingo da i2BASK indarkeriaren erabilera edo delituzko jardueretan parte hartzea sustatuko duten mezuak igortzeko bide izatea.
- b) Giza duintasuna: bazterkeria mota oro ekidingo da (soziala, erlijiosoa, etnikoa, kulturala, politikoa, sexuala edo ezintasun fisikoagatikoa eta psikikoagatikoa).
- c) Bizitza pribatua: funtsezko eskubideak eta askatasuna zainduko dira bizitza pribatua, datu pertsonalak eta sekretu epistolarra zainduta.
- d) Adin txikikoak: horiek erabiltzea saihestuko da, batez ere helburu sexuarekin, eta zuhurtziazko jarrera izango da haurrentzat kaltegarriak diren edukiak zabaltzean.
- e) Kontsumitzailea: gardentasun eta irisgarritasun printzipioak errespetatuko dira, kontsumitzailea babesteko arauen mende jarrita.

## 2. Zintzotasuna

Erakunde afiliatuek zuzen erabili beharko dituzte i2BASKek emandako baliabide publikoak. Baimendutako langileei bakarrik emango die sareko azpiegituretara sartzeko baimena eta ukatu egingo die sarekoak ez diren pertsonen edo erakundeen.

Baimendutako langileek i2BASKeko azpiegiturek eta zerbitzuak jarduera akademikorako eta ikerketarako, garapen eta berrikuntza teknologikorako bakarrik erabiliko dituzte. Baita horiei loturiko zeregin administratiboetarako ere.

Erabiltzaileek modu eraginkorrean erabiliko dute sarea, ahal den neurrian sarearen kongestioa ekiditeko. Inolaz ere ez da onartuko honako helburuak dituzten jarduerak garatzea:



- a) i2BASKeo beste erabiltzaileen ohiko dinamika kaltetzen duen materiala sortu edo igortzea.
- b) Komunikazio loturak edo sistema informatikoak kongestionatzea.
- c) Beste erabiltzaileen informazioa deuseztatzea edo aldatzea aurrez hala erabakita.
- d) Beste erabiltzaileen pribazitatea eta intimitatea haustea.
- e) Beste erabiltzaileen lana kaltetzea.

Era berean, ezingo dute inondik inora erabili i2BASk beraien erakundearekin zerkusirik ez duten helburu pribatu edo pertsonaletarako, helburu ludiko edo komertzialetarako.

### **3. Konfidentzialtasuna**

Sareko ohiko jardueran erabiltzaileek anonimatoari eusteko eskubidea izango dute. Baina i2BASKe gomendatzen die erakunde afiliatuei ezar ditzatela sarea erabiltzen ari diren taldeak eta erabiltzaileak identifikatzeko mekanismoak, kasuren batean identifikatuko beharra egonez gero ere.

### **4. Jabego intelektual eta industrial**

Erakunde afiliatuek egileek beraien sormen intelektual eta industrialengatik duten eskubidea aitortuko, errespetatuko eta defendatuko dute, indarrean dagoen araudiaren arabera.

### **5. Erantzukizuna**

Erakunde afiliatuek bere erabiltzaileei jakinarazi egingo dizkiete i2BASKen helburuak eta agiri honetan dauden erabilera terminoak eta baldintzak. Horiek bete daitezzen zaintzea ere beraien kargu egongo da.